

**2015/2016 IKASTURTEA: INFORMAZIO OROKORRA**

2015/2016 ikasturtean, **kontrakoa agintzen EZ duten ikasle GUZTIAK matrikulatutzat** hartuko dira.

Eskolan jarraitu nahi duten ikasleak matrikulatutzat hartuko dira automatikoki, bestelako idazkia betetzeko beharrik gabe. Baja eman edo matrikula aldatu nahi duen ikasleak hori jakinarazi beharko dio bere irakasleari, 616725218 telefonora deiturik edo posta elektronikoaren bidez.

Musika-tresna bat lehenengo aldiz hautatzen dutenek, BAI, matrikula egin beharko dute, ezarritako epean.

Matrikularen zenbatekoa, hiru zatitan banatuko da, ordainketa errazteko. Ordainagiriak igorriko dira urrian, otsailean eta apirilean. Matrikula gauzatzen denean, urte osorako indarrean dagoela iritziko da, halabeharrez hiru epealdiak ordaindu beharko direla. Ez da inoiz matrikularen zenbatekoa itzuliko.

Izena emateko epea **maiatzaren 11n irekiko da** eta hil bereko **22an itxiko da**. Matrikulazioa egiteko: posta elektronikoz, orreagamusika@gmail.com helbidean, telefonoz, 616725218 zenbakian; edo inprimakia utzirik Kultur Etxean.

Matrikularen prezioak hauek dira, Berriobeitiko Udalean erroldatutakoentzat:

	Erroldatuak	Ez erroldatuak
Musika eta Mugimendua, Hastapena, Musika-hizkuntza:	168 €	336 €
Talde korala edo instrumentala:	168 €	336 €
Musika-trena + Musika-hizkuntza + Taldeak:	399 €	800 €
2. musika-tresna:	210 €	410 €

Klaseak 2015eko irailaren 14an hasiko dira. Taldeak, berriz, urrian hasiko dira.

Ikasketa orokorrak horrela sailkatu daude:

Hastapena: Musika eta mugimendua (4 eta 5 urte), astean ordu beteko talde-klasea.

Hastapena I (6 urte), astean ordu beteko talde-klasea.

Hastapena II (7 urte), astean ordu bete, ordu erdi haurren abestaldean eta musika-tresnarekin has daiteke.

Musika-tresnak:

Zeharkako txirula – Biolina – Akordeoi – Txistu – Gaita – Kantu – Pianoa – Saxofoia – Klarineta – Tronpeteta
Tronboia – Tuba – Bonbardino – Gitarra klasikoa.

Orreaga rock: Gitarra elektrikoa – Baxu elektrikoa – Bateria – Piano modernoa – Kantu modernoa – Saxofoia

I. Zikloa: 8-11 urte bitartean. Musika-hizkuntza 1, 2, 3 eta 4 (astean ordubete), ordu erdi banakako musika-tresna eta talde instrumentala (bat baino gehiagotan parte har daiteke).

II. Zikloa: 12 urtetik aurrera bestelako bi ibilbide dago:

- Amateur gisa: aurreko zikloaren formazio berarekin.

- Kontserbatorio prestakuntza ikastaroa: Ikastaro honetan, musika ikasketak modu profesionalean jarraitzeko Kontserbatorioan sartzeko interesa duten ikasleak prestatuko dira. Musika-trenarako irakas-denbora astean 45 minutukoa izanen da, banakako klasetan. Musika-hizkuntzaren ordutegia, interesatutako ikasleen arabera finkatuko da.

Helduak: Helduek beraien beharren arabera ikasketa-plana eginen dute. Helduentzako berariazko Musika-hizkuntza dago eta, horrez gain, eskolako talde guztietan parte har dezakete.

Musika-hizkuntza nahitaezkoa izanen da I. Zikloa bukatu arte; ondoren borondatezkoa izanen da.

Taldeak dira: Haurren abestalea, Comboak, Fanfarrea, Batukada, Txirulen taldea, Gitarren taldea, Txistuen taldea.

Banda bat sortzeko proiektua dago.

Musika-tresnaren irakaslea ikaslearen tutorea da eta horren bidez zuzendaritza-taldeari kontsultak bideratu ditzake.

Orreaga Musika Eskola, 2015-2016 ikasturteetik aurrera, ildo modernoaren ikasketak bultzatuko ditu, Orreagarock sortuz. Horretarako ospe handiko bi eskolekin harremanetan dago: Londreseko **Rockschool** eta Bartzelonako **Jamsession Goinmailako Musika**. Biak bideraturik daude Rock, Pop eta bestelako musiketara. Elkarlan honen bidez, aukera eskainiko du beraien azterketak prestatzeko eta beraien ziurtapenak eskuratzeko.